

VII ERANSKINA

ESKABIDE ETA AGIRIEN AURKEZPEN ELEKTRONIKOA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotako aurreikuspenak indarrean jartzearekin bat, pertsona juridiko guztiek (elkartek, erkidegoak, enpresak,...) administrazio publikoekin harreman elektronikoa izateko betebeharra ezarri da.

Egoera horren aurrean, hainbat inguruabar ezarri dira:

1. Eskura badugu erakundeko ordezkariaren ziurtagiri elektronikoa:

Halakoetan, dirulaguntzaren eskaera Udaleko webguneko hurrengo atal honetan aurkeztu ahal izango da: Dirulaguntzak, bekak, sariak eta laguntzak eskatzea.

2. Ez dugu ziurtagiri elektronikorik eta bat lortu nahi genuke edozein administrazio publikorekin harremanetan jartzeko:

Kasu horretan, aukerak ordainpekoak izango dira, eta honako erakundeen bitartez egin beharko dira: IZENPE

(https://www.izenpe.eus/contenidos/informacion/certificado_representante/es_def/adjuntos/3_Guia_Pamples.pdf) edo

FÁBRICA NACIONAL DE LA MONEDA Y TIMBRE

(https://www.sede.fnmt.gob.es/documents/10446703/10515015/re_pr_representantepj_representanteespj.pdf).

Ziurtagiri hau lortzen denean, aurreko puntuan azaldutako moduan eska daiteke dirulaguntza.

3. Ez dugu identifikazio elektronikorik, baina presidenteak edo idazkariak bai, eta Sestaoko Udalarekin bakarrik dihardugu harremanetan:

Halakoetan izapidea doakoa da. Elkarteko presidenteak edo idazkariak Ordezkaritza Berriaren izapidea egin beharko du udalaren webgunearen bidez.

Izapide horretan, nahitaezkoa izango da elkartearen Zuzendaritza Batzordea jasotzen duen Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroko ziurtagiria aurkeztea.

Ordezkaritza onartu ondoren, jakinarazpen pertsonala jasoko da eta dirulaguntza eskatzeko izapidea 1. puntuan azaldu den bezala egin ahal izango da.

4. Ez dugu identifikazio elektronikorik, presidenteak edo idazkariak ere ez, eta Sestaoko Udalarekin bakarrik dihardugu harremanetan:

Halakoetan izapidea doakoa da. Elkarteko presidenteak edo idazkariak BAKQ ziurtagiri elektronikoa eskatzeko baldintzak bete beharko ditu (helbide elektronikoa, telefono mugikorra eta 16 urte baino gehiago izatea).

Eskaera aurrez aurre egin daiteke Udaleko Erregistroan, Estatistika Sailean (errolda) edo KZgunea zerbitzuan. Behin ziurtagiri hori lortuta, ordezkaritza eskatzeko izapidea egin ahal izango da, aurreko puntuan azaldu den bezala.